

Xanti Zapirain

URRUTI ETA ERA BEREAN, GERTU

Gizakiak, pertsona egiten ematen duen bilakaeran, hainbat gai barne-barnekoak eta gizarteari bideratuak jorratu behar izaten ditu. Are eta sakonagoak suertatzen zaizkio bere habitat naturaletik at, hau da, bere sorlekutik urrun xamar bizitza tokatzen baldin bazaio. Zenbait sentsibilitate gehiago lantzen ditu eta egoera horrek, askotan, gaien garapena ia muturreraino eramaten ditu.

Denbora luze batez, egoera latza baldin bada eta konpromisoak sakonak, bizitza bera ere arriskuan jartzeraino, idatziz adierazi nahi izate hori aberasgarritzat baloratzen dugu gertutik jarraitzen dugunok.

Horren adibide dugu Xanti Zapirainen kasua; sorterria, hizkuntza, familia, lagunak, militantzia, aberria, askatasuna... bere gordeleku horretatik, distantzia eta guzti kontutan harturik, gatz eta piper multzo handi batez, eta zenbaitetan bertsotan jorratzen ditu.

ALTZA ZAHARRA (1977)

- 1) Ni jaio ezkeroz Altzak
jo du mudantza,
tankerik ez da hartzen
burua den edo isatza;
herri txiki bat izateko
kolpea oso latza
oraintxe hartu digu
Cordobaren antza.
- 2) Zoritxarrez etorri zen
salketaren urtea:
Silva andaluza genun
ordun alkatea,
Donostira komeni zen
herriko etxea eramatea,
orain igarri dugu
gauza horren kaltea.
- 3) Salketak egin diguna
herria izorratu...,
txuriak ziren gauzak
beltzak dirade bihurtu;
bizi guzian ezagututakoa,
euskal giroa ohostu
eta gainera txarrena
euskera baztertu.
- 4) Alkatea saldu bazun
izango zen hutsa
okerrena beste batzuek
egin zutela bultza;
izan zen saldu zuana
Silva andaluza
baino Altzan ere
izan zun laguntza.
- 5) Egin zuten Donostira
gauz dana bialdu
eta herriari traizioz
berizitasuna kendu;
lehengo kutsua, hala ere,
Altzak ez du galdu,
etzekiten nortasuna
ezin dela saldu.
- 6) Don Roman eta izeba Patrixi,
Antxon Audizkoa,
Putzutaren idi pare
eta plaza goikoa,
mendia, eta frontoi ondoan,
atsoak elkartzeko lekua:
herri zaharra bizitzeko
hau bada nahikoa.
- 7) Etzaigu ondo iruditzen
egindako ekintza;
horren gainean oraindikan
egin behar dugu mintza:
ordutik honera gu
galduta gabiltza
baina herriak ez du eman
azkeneko hitza.

NIK LIBURUTEGIA DUT

- 1) Liburu asko erosten ditut inoiz ez irakurtzeko literatura ona delako etxea ondo jazteko. Intelektuala nahi nuke izan bestela zerbait antzeko kultura oso ona omen da gizendu gabe jateko.
- 2) Jangelan ditut mila liburu asko maite dut kultura oraindik ez dut bat irakurri ezin da sartu barrura. Gizarte hontan hobia baita kultura baino itxura ergel mordo bat pozik bizi da ezjakinaren kontura.
- 3) Beti erosten ditut gainera liburu garestienak nahiz eta asko ez begiratu azkar ikusten direnak. Bostehun bat horri dituzten hoiek izaten dira onenak oheko hanka hausten denean karga eusten dakitenak.
- 4) Lagunak sarri etortzen dira etxera bisitatzera hor izaten ditut liburu denak erakusteko aukera. Debate onak maite ditugu gau erditikan aurrera jakintsu denak egina dugu taberna baten karrera.
- 5) Lagun artean ederrena da isilik atera nota gurea balitz modu berberan esaldi onena bota. Nahiz eta hanka askotan sartu ez du batere inporta berdin bait zaigu filosofia edo ezkurren konpota.
- 6) Asko maite dut sukalde zaharra baina piztu gabe sua itxura ona da gizartean gezurra ez da antzua. Liburu batzuk erakutsita egin naiz zoriontsua sos gutxirekin egin daiteke artaburu bat maisua.
- 7) Azken bertsoa idatziko dut hasi behar dut garbitzen lagunak datoz ikustera ta liburuei hautsa kentzen. Haiek etorri baino lehenago hasiko naiz irakurtzen ez ba zait orain gertatzen behintzat ez naizela gogoratzen.

Explotazioa ez dut onartzen
eta ni terrorista naiz.
Zapalketa ez dut onartzen
eta ni terrorista naiz.
Gezurra ez dut onartzen
eta ni terrorista naiz.
Tortura ez dut onartzen
eta terrorista naiz.
Ustelkeria ez dut onartzen
eta terrorista naiz.

Explotazioa
Zapalketa
Gezurra
Tortura
+ Ustelkeria

Boterea

Boterea ez dut onartzen
eta ni.....
.....
.....
.....naiz.

EUSKALDUNAK

- 1) Herri txiki bat baina haundia da Euskal Herri maitea naturak ez du mundu osoan gu bezelako lorea. Sustraiia dugu historian ta odola oso gaztea itxaropena euskalduna da etorkizuna gurea.
- 2) Milaka urte bizi garela gure aberri maitean beste hainbeste biziko gara lurra lur den bitartean. Egia ez da luze egoten gezurraren aginpean nola itzali Euskal Herria argia bera denean.
- 3) Herri bat gara maitagarria jatorra eta leiala arima dugu garbi garbia bihotza oso zabala. Irribarrea gurekin dugu ibaiak ura bezela esan liteke Euskal Herria maitasuna bizi dela.
- 4) Nahiz eta izan zoragarriak arazoak ba ditugu eman diguten autonomia txikia gelditzen zaigu. Aberri eder bat izateko askatasuna behar dugu ta Europarrak izango gara baino baldin ba gara gu.
- 5) Askatasuna lortutakoan egingo dugu pakea pakea baita justizia ta maitasunaren labea. Aurrera goaz pozik jarraituz zorionaren bidea denon artean lortuko dugu ametsaren gizartea.
- 6) Egingo dugu egunsentia ekarri udaberria gure herria bihurtu arte pertsonen lorategia. Taupadan dugu zirrara eta ariman argi garbia zoriontsuak izango gara besarkatuta egia.
- 7) Sozialismoa maitasuna da bihotzen ideologia zorionaren eraikuntzako pertsonen erabakia. Gezur guztiak zapaldu eta egin dezagun argia egi bidean elkar maitatuz egiten da utopia.
- 8) Utopia da gaurko ametsa biharko errealitatea zeren pausoa gelditu arren ez da bukatzen bidea. Euskal lorea bihurtuko da lorategi dotorea pena bat daukat bakar bakarrik nik hori ez ikustea.

GURE HAUR BAT JAIOTZEN DENEAN

Gure haur bat jaiotzen denean
poza iristen da gailurrera
argi bat pizten da bihotzean
zoriona bait dator etxera.

Jaio zera gure haur maitea
zorutzen gaude aita ta ama
zuk loratuko duzu etxea
eta goxatu zure arima.

Gure etxean sartu da argia
bihotzean zorion zabala
maitasunetik dator bizia
haurra maitasun goxoena da.

Seaskan zaude gure izarra
aita ta amaren poz guztia
izango zera bihotzeko haurra
gure zorionaren mamia.

Ez dago ezer iristen denik
maitasunaren gailurreraino
ez dago lore ederragorik
haurraren irribarrea baino.

Maite zaitugu izar kuttuna
gure maitasunaren fruitua
zer da ba orduan maitasuna
ez ba da gau erdiko musua.

Etxeko izarra lotan dago
bere seaskatxoan etzanda
zertarako idatzi gehiago
olerki onena egina da.

EMAKUMEA

Herrian zauden pertsona
borrokan zauden lorea
lore gorri dotorea
miresten zaitut maitea.
Itxaropena zu zara
gora pertsona emea.

Historian zehar borrokan
aldatzeko gizartea
arrazoien kolorea
lortzeko mundu hobea.
Zuk sunsituko duzu
gizonaren boterea.

Betidanik zu izan zara
iraultza bukatu gabea
ase ezin den gosea
helmuga jatorren bidea.
Bakarrik lortuko duzu
ametsaren gizartea.

Gizaki maitagarria
herri xumearen kidea
adiskide paregabea
xarma goxoez betea.
Zu zara emakumea
edertasunaren jabea.

Zu zaitugu emakumea
etorkizunaren labea
ametsaren zutabea
egunsenti dotorea.
Zure arimak dakar
maitasunaren bakea.

EUSKALDUNEN AGINDUAK

Lehendabiziko agindua ni
orain noa ematera
hau betetzea tokatzen zaigu
abertzaleak bagera.
Gure hizkuntza maite ez ba dezu
euskaldun erdia zera
euskaldun batek bihotz-bihotzez
maite behar du euskera.

Laugarrena da dudarik gabe
egin behar den ekintza
nere iritziz hitzarik gabe
ez da zuzena bizitza.
Esan baino lehen ondo aztertu
pentsatu gabe ez mintza
eman ezkeru euskaldun batek
bete egin behar du hitza.

Bigarrena da gogorra baino
betetzen maitagarria
ez bait da inoiz ondo asetzen
euskaldunen egarria.
Denaren aurka baino oraindik
bizi da Euskal Herria
euskaldun jator hil arteraino
maite gure aberria.

Bostgarrena da lanari buruz
denak ulertzeko eran
pertsonek batek bizimodua
berak irabazi dezan.
Lanari heldu bi eskuekin
egun osoan ez etzan
nere iritziz alperra denak
pertsonek ezin du izan.

Hirugarrena anai maitea
da pakearen mamia
esaten dizu ezin dezula
izan inoiz gezurtia.
Bizi osoan euskaldun jator
aitortu bati egia
kontuan hartu egia dela
mundu hontako argia.

Seigarrena da nahiko arina
baino garrantzia ba du
ardura gabe dabilenakin
inora ezin da heldu.
Pauso zuzena eman ezkeru
bidean ezin da galdu
errespetoa maite duena
ez da iristen berandu.

Zazpigarrenak esaten dizu
ximeltzen dela lorea
gazte denboran ez harrotzeko
luzea dela bidea.
Zuk hartu dezun maitasun hori
ona dela eskertzea
seme alabak zuen lana da
guraso zaharrak zaintzea.

Zortzigarrena ariman sartu
esaten duena bete
zure bizian jakinda behintzat
inori ez egin kalte.
Maitasun gabe zoriontsua
izan leikenik ez uste
horregatikan jatorra izan
lagunak benetan maite.

Azken aurrena pozikan dator
da bederatzigarrena
honek kantari esaten dizu
berdez margotzeko pena.
Ez ahantzi inoiz bizian dela
ametsa izar onena
ametsa oso zaila da baino
ez galdu itxaropena.

Hamargarrena kontuan hartu
baita benetan sakona
ikasi ondo emakumea
berdin zuk ere gizona.
Biziak ez du berez balio
eman arrazoi bat ona
ezer baino lehen anai maitea
izan behar da pertsona.

“GANBARA ESTUTUZ”

Itxaropenak, bihotzeko malkoak
ariman ihintz bihurtzen ditu.

● ●

Sugeak eguzkitan ikusten dira,
adiskideak itzalean.

● ●

Gizarte honetan,
zertarako behar dugu dena hain haundia?
Zoriona muxu txiki txiki batean kabitzen da.

● ●

Bizian ia dena aurki daiteke
norbera galtzen ez bada.

● ●

Arrazoiak gizon egiten gaitu,
egiak pertsonak.

● ●

Inori kalte egin gabe
ardura zaitez besteetaz.

● ●

Inor ez da pertsona
demostratzen ez duen bitartean.

● ●

Herria txiroa da,
boterea miserablea.

● ●

Boterearen pakeak
armak ditu,
herriaren pakeak
arima.

● ●

Demokrazia,
denok parte hartzen dugun oturantza da;
aberatsak bazkaltzen
eta txiroak ontziak garbitzen.

● ●

Olerkirik ederrena
ez da idazten
egin egiten da:
haur bat..

● ●

Aske jaiotzen gara,
errefuxiatu bizi,
eta hil preso.

● ●

Hilea orrazten duenak
burua apaintzen du,
ideiak orrazten dituenak
burua galtzen du.

● ●

Egia da lorea
inoiz ximeltzen ez dena.

● ●

Heriotza aurkitu egiten da.
Bizia bilatu.

● ●

Nahiz eta eguzkia egunero atera
argia norberak eskuratu behar du.

● ●

Dena edukitzeko
amets egin behar da,
pixka bat lortzeko
borroka.

● ●